

BEZEROEKIN HARREMANA

Gure bezeroekiko harremana zuzena izango da eta harreman nagusiena familiekin sortuko den ahoz ahokoa izango da. Haiekin kontaktuan egongo gara eta saio bakoitzaren amaieran, eroso egon diren ala ez galdetuko diegu. Horrez gain, haurren eta familien arteko erlazioa eta haurraren prozesua egokia izaten ari den behatu eta arreta jarriko dugu.

Gure bezeroei, lehen esan bezala, saio bakoitzak amaitu ostean batzar bat egingo genieke haien haurren garapena nola doan jakinarazteko. Kexarik balute bertan ere komunikatzeko aukera izango lukete eta horretaz aparte, gure aldetik zerbait hobetzeko ikusten badute, arinen guri jakinarazteko aukera ere.

Bezero berriak erakartzeko gure ikastoletatik publizitatea egingo dugu eta horrez gain, udaletxeari laguntza eskatuko diogu. Gainera, web gune personal bat sortuko dugu eta bertan informazioa gehi apuntatzeko esteka agertuko da. Noski, etorri direnek esperientzia ona izaten badute, nahi izanez gero, lagunei eta familiakideei informatuko diete gure enpresataz.

Gure enpresak, bezeroei laguntza pertsonalizatua eskeiniko die. Gainera, gauden egoeran, hau da, COVID egoera, saioak online egiteko aukera izango dugu. Konfinatuta, sintomekin edo gogo txarrarekin badaude, ez dira zertan fisikoki etorri

behar, meet bitartez egingo genuke saio hori.